

• **Futbola**

Reala: Ricardo Sa Pintok esan du taldeak «erantzukizun handia» duela, iaz hirugarren izan zelako → **29**

• **Eskubaloia**

Portland San Antonio: Buligan atzo atera zen ospitaletik, eta gaur gaur jakingo da atezain berria nor den → **32**

Saskibaloia

Tau Baskonia Euroligan

Istorio polita, amaiera mingotsa

Maccabi Varese nagusitu zitzaionez, akabo Baskoniaren Euroliga

Panathinaikos ● Tau Baskonia

86**63**

Panathinaikos.- Gentile, Bodiroga (25), Alvertis (13), Ekonomou, Dino Radja (22) -hasierako bostekoa-; Boudouris (9), Patavoukas, Burke (14), Fotsis (3), Hupmann.

Tau Baskonia.- Bennett (17), Espil (17), Beric (8), Winters (5), Rusconi (6) -hasiera-

ko bostekoa-; Angulo (1), Sanders (8), Millera, Doblas, Ortun (1).

ATSEDENALDIAN: 42-41.

Luis Karlos Garcia / Gasteiz

KITO Tau Baskoniaren Euroliga. Zailegia zen atzo txartela lortzea. Atenasen galdu zuen, eta Maccabi Varese 16 puntuko aldea atera zionez gero, Tau final-zortzirenetako kanporaketatik at geratu da.

Panathinaikos gehiegizko aurkaria izan zen beti Sergio Scarioloren taldearentzat. Lehenengo zatian oreka handia izan bazen ere, partiduko lipar bakoitzean sentitzen zen Greziako taldeko jokalariek oso onak zirela, gehiegi baskonisten mugak gogoan izanda. Kalitate kontua zen askotan, nahiz eta Tau ohi bezala partidua taldeen arteko neurketa bateko parame-troetara eramanez nahi zuen. Izarrek batzuetan distira egiten dute.

Gainera, arazoa zen Baskonia honek ezintasun nabariak dituela Panathinaikosen baliabide batzuk geldiarazteko. Adibidez, zaila du zonako bihotzeraino oin mugimendu bikain batez sartzen dakien 2,04 metroko eskolta zaintzea, eta Atenasen Europako onena dute: Dejan Bodiroga. Era berean, zer egin dantzan ere hegalekoa bailitzen egiten duen 2,11ko pibot baten aurrean? Tauk ez zekien zer egin Dino Radjarekin. Azkenean serbiarrak 25 puntu zituen eta 22 kroaziarrak, makina bat errebote harra-patzeaz gainera.

Horrela izanik ere, Tauk aurpegi polita eskaini zuen aurreneko zati osoan. Baina aldagelatan hasi zen hondamen txikia, jokalariek baskonistek Maccabi Varese irabazi ziola jakin zuten unean, hain zuzen. Horren eraginez agian, baina Zurbako taldeak ez zion batere fin ekin bigarren zati erabakigarriari. Baten batek pentsa zezakeen Kopako finalaren errepikazioa zela, baina ez, Panathinaikos ez da galaxia honetako, eta hastapen bikain batekin txikitu zuen, partidua ez ezik, amets bat ere: atsedendiko 42-41tik 64-49ra igaro zen minutu gutxi batzuetan; 22-8ko partziala eta maleten bila.

Panathinaikosek bota du Tau

Panathinaikos izan da Baskoniaren berreroa. Hiltzaile hotz, isil, profesional eta arrazoirik gabea izan da, ez baitzuen ezer jokoan Arabako neurketako azken minutua arte itxoin zuenean kolpe erabakigarria emateko, ezta atzoko porrot mingarrian ere.

Pena izan zen, bai, bigarren zatiko pasarte batzuetan jipoiturik eta erdi umiliaturik gertatu baitzen Scarioloren taldea, Tel-Aviveko gau beltzaren antzera; Hupmann izena duen adimen gutxiko erraldoi batek Angulori belar-rondokoa eman zionean,



ARIS MESSINIS / EFE

Espil jokalariek baskonista, Ekonomou eta Panathinaikoseko beste baten artean, atzo, saskiratu nahian.

esaterako. Ulertezina. Eta mingotsa ere bai, Tau Baskoniaren Euroliga onak ez baitzuen merezi horrelako bukaera samina. Azken batean, Europako txapelketa garrantzitsuko final-zortzirenetako kanporaketatik kanpora doa, aurrera egin duten Maccabi Tel Aviv eta Varese taldeekin berdinduta geratu da, puntu koefiziente okerragoarekin baina. Hurrengoan, agian ere, hobeto.

F Multzoko sailkapena

Taldea	Jokatu	Irabazi	Galdu	Puntuak
1. Panathinaikos	16	15	1	31
2. Efes Pilsen	16	11	5	27
3. Maccabi	16	7	9	23
4. Varese	16	7	9	23
5. Tau Baskonia (*)	16	7	9	23
6. Saratov (*)	16	3	13	19

Emaitzak: Panathinaikos - **Tau Baskonia:** 86-63
Maccabi Tel Aviv - Varese: 94-78
Efes Pilsen - Saratov: 107-91

(*) sailkatu ez direnak